

TAILERRA · EKAINAK 4 · TORREKUA, ORERETA

Teknopolitika eta Burujabetza Uztartzeko Bideak

Ardatzak – Begiradak – Lanketak

Gorka Julio

Saioaren eskema



1 Aurkezpena

15 min



2 Atal teorikoa

15 + 15 min



3 Tailer dinamika

30 + 30 min



4 Itxiera

15 min

Espazio hustua ez da hutsala, baizik eta hutsunearen egitura bat

Jorge Oteiza

Antzera, teknologiak ez du neutroa izatea posible. Beti dakar bere egitura propioa, bere logika, botere-harremanak kodetzen ditu.


Teknologia tresna huts gisa ikusteak, ezkututzen du teknologiak berak nola egituratu duen gure mundu soziala, politikoa eta ekonomikoa.

◆ Kontroletik askatuz:

Tailerrak irauten duen bitartean zure mugikorra kutxa batean sartzeko aukera duzu? Gai teknologikoak gure egunerokoan izanik ere arrotzak, teknikoegiak edo ulertezinak bezala identifikatzeak sistemari bakarrik egiten dio on; sahiatu pentsamendu horiek alboratzen.

Ardatzak

Guiomar Rovira (2017)



Begiradak



Bektorialismoa

Mckenzie Wark

Klase bektorialistak informazio eta datu fluxuak kontrolatuz guztion bizitzak desjabetu, esplotatu eta datifikatzen ditu.



Mendekotasun digitala

Cecilia Rikap

Monopolio intelektualek herrialdeek eta erakundeek sortzen duten ezagutza lapurtzen dute.



Kosmoteknia

Yuk Hui

Ez dago teknologia 'neutral' edo 'unibertsal' bat. Kultura bakoitzak bere kosmobisioan oinarritutako teknologiak ditu.



Tequiologia

Yasnaya Elena Aguilar Gil

Tequio = auzolana. Komunitateak eraikitako teknologia, ongizate komuna onura indibidualaren ginetik jartzen duena.



Cyberfeminismoa Teknofeminismoa

Sadie Plant & Helen Hester

Teknologiak patriarkatuaren logikak ez ditu zertan erreproduzitu behar.

Kontzeptuak

«**Burujabetza teknologikoa** herriek, komunitateek eta herrialdeek, nork bere ezaugarrien arabera modu ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak erabiliz, beren sistema eragile, software, hardware, sare eta azpiegitura politika propioak definitzeko eskubidea dute. Teknologia eduki eta ekoizteko eskubidea barne hartzen du, alegia, jende guztiak daukala teknologia seguru, bizigarri eta kulturalki egokia eta teknologia ekoizteko baliabideak izateko eskubidea, eta nork bere burua eta bere gizartea modu iraunkorren eustekoa. Teknologia burujabetzak esan nahi du herriek eta komunitateek nagusitasuna dutela merkataritza auzien gainetik teknologia eta teknologien ekoizpena kontrolatzeko»


Software librea erabiltzaileek erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu dezaketen softwarea da

- 1) Helburua edozein dela ere exekutatu ahal izatea.
- 2) Aztertu eta aldatu ahal izatea.
- 3) Kopiatu ahal izatea.
- 4) Hobetu eta hobekuntza horiek publiko egin ahal izatea.

Pila teknologikoa sistema digital baten funtzionamendurako elkarri lotuta dauden geruza teknologikoen multzoa da. Geruza horiek hardwarea, sareak, sistema eragileak, softwarea, datuak, protokoloak eta erabiltzaile interfazeak izan daitezke. Pila teknologikoaren ikuspegiak erakusten du teknologiak ez direla elementu isolatuak, baizik eta elkarren mendeko osagai multzo konplexuak; geruza batean hartutako erabakiek gainerako geruzetan ere eragina dute.

Prokomuna komunitate batek kolektiboki sortu, zaindu eta partekatzen dituen baliabide materialen edo immaterialen multzoa da, denon onurarako erabiltzen dena. Ezagutza, softwarea, hizkuntza baliabideak, datuak edo azpiegiturak prokomun izan daitezke, baldin eta komunitateak modu ireki, parte-hartzaile eta iraunkorren kudeatzen baditu. Prokomunaren logikak lankidetzatza, zaintza kolektiboa eta sarbide bidezkoa sustatzen ditu.

Praktikak



Plataforma kooperatibismoa: Coopcycle, Katuma, Basajaun

Telekomunikazioak: Guifi.net, Somconexio, Abaila, Izarkom, Bikonet

Energia: Goiener, Somenergia, Komunitate energetikoak.

Sare sozialak: Fedibertsoa (Mastodon, Peertube, Pixelfeed...)

Zerbitzu mankomunatuak: Maadix, Commonscloud, Meet.coop, Framasoft, La Digitale

Parte hartzea eta eragiletza: Zetkin, Goteo, Decidim, Consul

Ardatzak

Aukeratu kategoria bat eta horretan erabiltzen dituzuen teknologiak kokatu ardatzean.

1

Barne komunikazioa
Posta elektronikoa, barne txatak, buletinak...

3

Barne kudeaketarako tresnak
ERPak, CRMak, proiektu kudeatzaileak...

2

Kanpo komunikazioa
Newsletterak, webgunea, sare sozialak...

4


Biltegiratze eta elkarlanerako tresnak
Dokumentu kudeatzaileak, hodeiak, foroak...

 *Taldean eztabaidatu eta partekatu*

1) 3 tresna > Kokatu ardatzean > Aukeratu alternatibak > Kokatu ardatzean


2) Zergatik aukeratu dituzue alternatiba horiek? Zein zailtasun aurreikusten duzue aldaketa hori egiteko?

Ardatzak fitxa



Bide orri teknopolitikoak gure erakundeetan

BOT — Bide Orri Teknopolitikoa



Burujabetza digitala berreskuratzeko ekintzak

BDB Burujabetza digitala berreskuratu

1

Ekosistema digital publikoa eraiki

Azpiegitura eta plataforma digital publikoak sustatu
Kooperatibak eta ETE digitalak lehenetsi
Big Tech-ekiko dependentzia murriztu

2

Ikerketa agenda berria sortu

Merkatu logikatik harago pentsatu
Arazo kolektiboei erantzuten dieten teknologiak garatu
Ezagutza sare ireki eta publikoak indartu

3

Burujabetza digital ekologikoa garatu

Lehia teknologiko nazionalista gainditu
Nazioarteko lankidetzak demokratikoa sustatu
Kolapso ekologikoa ez areagotu

4

Kontrol demokratikoa eta babes neurriak bermatu

Zelatatze eta botere gehiegikeriak mugatu
Instituzio digitalen kontrol publikoa bermatu
Araudi eta hitzarmen internazionalak indartu

NEURRI ZEHATZAK

Monopolio digitalen aurkako neurriak
Datuak eta ezagutza ondasun komun gisa ulertu
Korporazio digitalei zerga handiagoak ezarri
Langileen autonomia eta eskubide sozialak indartu

Nola aurre egin teknofaxismoari

BDB Burujabetza digitala berreskuratu

1

Teknofaxismoaren diagnostiko polanyiarra

Big Tech eta Estatuaren arteko fusioa
AA, zelatatzea eta kontrol automatizatua
Kapitalismo autoritarioaren forma berria

2

Determinismoa taktika ideologiko gisa

“Alternatibarik ez dago” diskurtsoa
Teknologia aukera politikoen ginetik aurkeztea
Erresistentzia: determinismo hori zalantzan jartzea

3

Mugimendu bikoitza eta bere egungo formak

Babes autoritarioa: kontrola eta errepresioa
Alternatiba demokratikoa: teknologia gizartearen kontrolpean
Burujabetza teknologiko kolektiboaren alternatiba demokratikoa indartu

4

Lanari buruzko isiltasuna sintoma gisa

Langileen baztertzea diskurtso teknologikoan
Sindikalgintza eta antolaketa teknologikoa giltzarri
“Hacker klasearen” antolaketa estrategikoa

5

Hierarkia zibilizatorioa nukleo ideologiko gisa

Arazismo kolonial digitalizatua
“Kultura aurreratua” vs “atzerakoiak”
Teknologia menderatze tresna bihurtzea helburu

ZER EGIN?

Eztabaida politikoa berreskuratu - Burujabetza teknologikoaren sareak indartu - Langile teknologikoak antolatu - Oligopolioekin kontratu publikoak eten - Kontrol demokratikorako erakunde berriak eraiki

RAP neurriak - Publizitate Erasoari Erresistentzia adibidea

Hona hemen hiru ekintza komunikatibo soil kapitalismo kognitiboa neutralizatzeko eta kultura libre digitala koherentziaz eta sinpletasunez sustatzeko.

1

Erabili sustatu gabe

Gauza bat da publizitate-bitartekoak erabiltzea jendea gure webgunera bideratzeko, webgunea baita gure etxea. Eta beste bat da bitarteko horiek sustatzea: gure espazioetan haien ikonoak jarriz bitarteko horiei publizitatea doan egitea (ez da ahaztu behar pertsonen aztarnariak direla eta kapitalismo digital harraparia elikatzen dutela).

Enpresa teknologiko handien boterea ezeztatzeko ekintza txiki handi bat, haien ikonoak gure webgunetik kentzea da. Horrela, norbait gurera iristen denean, ez dugu jungla digitalera itzularaziko. Harremanak aldebakarrekota izan behar du: junglatik oasira.

2

Sahiestu eduki eskusiboa

Publizitate-bitartekoetan eduki eskusiboa argitaratzea jendea haietan parte hartzera bultzatzeko zeharkako modu bat da.

Publizitate-bitartekoetan zerbait argitaratzen badugu, ziurtatu behar dugu badagoela informazioa beste bide batzuetatik ere lortzeko modua: gure webgunea, gure bloga, parte-hartze komunitarioko agora bat, edo Fedibertsoko edozein software libre eta federatu. Iruzkinek salbuespenezkoak izan behar dute: osasungarriagoa da elkarrizketak espazio propioetan edo komunitarioetan sustatzea.

3

Diru ekarpenik ez egin

Gure argitalpenak lehenesteko ordaintzen badugu, pertsonen arreta esplotatzen duen eta ingurune digital toxikoa sortzen duen publizitate-sistema bat finantzatzen eta horretan parte hartzen ari gara.

Erabaki dezakegu, ordea, giza makro-etxaldea finantzatzeari uztea. Ez dezatela gure aldetik zentimorik ere jaso!

BET neurriak – Burujabetza Ekintza Teknopolitikoak

Aukeratu eremu bat aurrekoetatik eta neurriak definitu

Bide egokian jartzen gaitu? Egingarria da? Epe ulergarrian? Atzeraezina izan daiteke?

1

2

3



Taldean eztabaidatu eta partekatu

- 1) Galdera lagungarriak irakurri, zalantzak badaude argitu eta gaiari buruz eztabaidatu.*
- 2) Behintzat 3 neurri jasoko dituen BET neurri bat diseinatu aukeratu duzun gairako*

Itxiera

Burujabetza digitalaren erronka ez da soilik teknikoa, ez da soilik politikoa ere, epistemikoa ere bada. Hiruak dira aldi berean. Eta erronka horri erantzuteko, ezinbestekoa da hiru dimentsio horiek —teknologia-eredua, botere-eraikuntza, teknologia ulerkera propioa— uztartzea. Teknologia ez da helmuga, bidea da; bidean zehar nola ibiltzea erabakitze gaitasuna, burujabetza eta hori egikaritzeko bidea teknopolitika.

◆ Hartu edozein mugikor eta entregatu bere jabeari. Entregatzearekin batera zer kontatu zenioke pertsona horri gaurko ikastaroaren inguruan esan. Mugikorra utzi ez dutenak, hasiko lirateke dinamikarekin eta beraiek izango dira lehenak denei zer kontatuko luketen esaten.